

ANSABEREKO ERREGEREN HISTORIA

Patxi Azpiroz eta Damaso Gallastegi

Behinola, fantasiako mundu batetan, Ansaberen alegia, benetako errege bat bizi zen. Baina berau ez zen errege normal bat, beleen errege baizik. Ezagutzera heldu ginenak ez dugu inoiz ahantziko.

Haiz, zergaitik ez, begirale bat, obserbadore bat, izakia bait haiz. Hil zorrian hago baino ez duk amorerik eman nahi kemen pixkat gelditzen zaiken bitartean. Urteak daramatzak hire bazter pribilijiatu horretan, hots, naiz hestu hain luzu den... fisura? -bai, horrela deitzen omen ziotek humanoek—, fisura horretan.

Nostaljiak datozkiate, nola goizero Lasku-netikan eguzkia. Non ote 1957ko iraileko goiz urdin eta paketsuak? non, iraganeko hegaleen oldar boteretsua? non, hire erpeen hertsatzea?

Zertxobait nabari duk, ez dakik non, nola edo zergaitik. Dena den zentzazio hori ez duk aurrena, lehendabizikoa. Noizbait..., bai, duela hainbat urte, 26 zehatzago, berdina sentitu huan. Jaio berri hintzen, hire kabiko lasaitasun eta beroan izkutatua, murgildua. Bi arrotz haiek, etsaiak agian? hire sehasketxea takoz iltzeztatu zutenean, nondik zinta kolorezko batzuek zintzilikatzen bait zizkiaten.

Zer nahiko ote ditek? galdetu hihoan heurre buruari, agian nire kabia zabalago bihurtzea? Baina ez, etorri bezala desagertu zituan, tako eta zinta haiek heuren premiarako erabiliz: aipaturikoetatik eskilaratxo batzuek eskeki eta gora..., geroago jakin huanez, estribuak omen zituan. Hau dena pikardaz ikusi huan, nola ez!


Harrezkero, belasko hintzelarik, hainbat bikote, hirukote eta bakarti pasa ohi dituk hire kabitikan, baina inork etzian sumatu han bela-etxea zegoela. Hainbat aldiriz heurre buruari galdetu hioan: nora ote? zergaitik? hasierako nola laister ulertu huan, denak berdintsu pasatzen bait zituan, egungo teknika erabiliz, alegia.

Normalki goiz antzean hireganatzen zituan: buru makur, pentsakor, pozez eta arduraz. Noski, ez bait duk broma hire kabira heltzea.

Baina oraingo hau desberdina duk. Egunak daramatzak hire kabitikan urten gabe. Noizbait Ansabereko hego ahalduenak izendakoengan ez duk behar den konfidantza. Lehen segundoetan jaisten huan 300

metroko paretak orain hotzikara bortitzak ematen dizkik. Mokoa kanporatzen ere ez haiz ausartzen, zentzazio hori humanoentzat bertigoa omen duk.

Zihur haiz hire hegoak ez hinduketela airean aguantatuko, gainera luma erdiak ere galduak dituk eta beste belatzen batek ikusiko bahindu, farre egingo liake.



Damaso Ipar-orratzari so Urrunean egunsentia hurbilago lainotartean. Lescun.

Bihozkada batek esaten dik heldu direla. 1957an Bellefon eta Despiauri lehendabizikotz bale-mendira zetozela antza eman hien bezala, orain, une honetan Linzara kotxetik jeitsi diren bi hoierei ere, bele mendira datoze-la oharitu diek. Badakik, hauek izanzen direla hire sehasketxea izendakotik pasatzen ikusiko dituan azkenak.

Zerbait gertatzen ari dituk: txatar zarata, jan lurrina eta oldarra.

Hurbiltzen zihoaztek, tortila usaiak delatatzen ziek. Artzai txabola... azkenek koiladoa, Petretxema-Sobarcal alegia. Ilunabarra duk, tortila usai desagertu duk, jan bait ditek. Ordea, oldarra eta desioa nabarmentzen zihoaztek. Oso gertuan dituk, heuren gorputz lokartuak ia ikus ditzakek: izarpean, belargainean, lo.

Egungentia, begiak ireki eta han dakuskik: zintzo, serio, hego-orratzen ostetikan zetoztekek aurki pareta azpian dituk.

Paretak transmititzen dizkik lehen ukituak, hor bait zeudek. Baleta hasi duk: hankak zabaldu, eskuak luze, hatzaparrak haitzean zehar zerbait aurkitu nahian, arnas estu, putzaldiak, oihuminak. Lagun bien gorputzak

dantza arraro, naiz sinkronikoa, hasi ditek. Lotu gabe zihoaztekek, hasierako tximinia, zeina ezkerretik eskubiruntz bait zihoak, nahiko erreza delako, 100 metro. Bukaeran «via» hasten duk, beroni hire kabiak ematen zihok izena: «diedro Bellefon» (250 metro) (V+): fisura izateko zabalegia, tximinia izateko estuegia, baina kabia izateko zer gozo eta apraposa.

Giharreak bigundu ondoren, rituala; kaskoa, biak esijitzen bait dik, anka-gatuak, boudrierra, txatarra ordenatu eta «gia» arri-mora, gerta dakienagaitik. Lehenengo 30 metroak igotzeko, gogoan duk, nola aintzina-koak ointokiak erabiltzen zituzten. Orain ordea, ez. Akrobazia batzu medio eta paretak eskaintzen duen presatxoak aprobetxatuz; kikildu, luzatu, putz, Ondia!-ren bat, eta goruntz. Bertan bederatziz ziri zeudek (V).

Bigarren zatian bertikalitatea desafiitzen duen tetrotxo batek buruhausteak sortzen zizkietek baina eskumaruntz joz, superatzea lortzen ditek. Gero aurrenak, ia arineketa, lokarria tentsatu arte segitzen dik. Tak-tak batzuk arditzera ematen ditek, urrun duan fisuraren bati aintzinan hire kabiari egin ziz-

kioten gili-giliak egiten ari direla (V hasiera, gero III).

Hirugarren langoan ia hire kabiarraino zetoztekek (III). Bertan dituk. Moko ateraz, gorputzek eraizten duten adrenalina, bihotzen taupada pausatua, konosteen arreta, lilura, harridura, txundidura senti ditzakek. Hi izaki, guzti horretaz jabetzen haiz. Heurek ordea, humanoak, ez zekitek hurbil hil zorian Ansabereko errege izandako dagoela.

Laugarren langoa, (V, paso bat V+). Hor zetorrek bat: bizi, odol bero, segur. Hogeimetrok separatzen zaituzte, hemeretzi, hamazortzi..., bi, bat. Fisuraren iluntasuna medio hire lumajea kamuflatan duk. Humanoa hor zegok, inoiz baino hurbilago. Gerdirik, txatar artean zerbaiten bila.

Aurkitu dik, fisurero delako bat. Enpotratzea nahi eta eskuan duelarik hireganatzen dik. Jo behar hau bera edo hi. Ateratzen haiz gorde lekutikan, seguraski egingo duan azken gauza duk. Bertikalak agintzen dik, grabedadeak. Hegoak lelo, zer ote? Humanoa ere larri, estu. Sustoa ia diedrotik atera du. Jarki haiz erostzera. Bere buruan pausa nahi duk, nonbaiten. Humanoa «tufo» handia botatzen dik, adrenalina omen duk. Bere laguna 20 metrotara zegok, bitartean segurorik ez. Heurentzat ere bertikalitatea hotz bihur litekek.

Fisureroarekin erasotzen hau, zer paradoja: kanpotik etorriko duk etxetik aterako hauena!

Azkenek beheratxoago repisa bat aurkitzen duk. Humanoa goruntz zihoak, hire kabia, fisura alegia, bukatzen den tokian tetrotxo bat zegok, hire kabiaren sakapea, humanoarentzat ordea, oztopo dexentea; alua, alua!! entzuten bait duk. Ondoren bigarrenak igotzen dik. Goian, reunion alegia, ipuinak ugariak dituk. «A parir» ipintzen haute: txori alua!!

Eragozpen handirik gabe, bi lango gehiago eginez (IV, IV+, paso bat V+) hire etxe-ko «lepoa» delakora heltzen dituk eta han ere madarikazioak: Solte zegok!, ez nauk tutik ere fidatzen! barrabiletaraino natxiok! [Hemendik gailurrera lango bat (III), baina oso ustela eta soltea].

Humano aluak! zer usten ziaten ba? alperrik esan zian norbaitek: «Ansaberen eskalada oso aereo da, sarritan butzorgarria, gogortasuna delarik bere ezaugarri nabarmenena...».

Dena den amaitu ziaten heuren «via», hiri ere bele, egun berean bukatuko zitzaian bizia.

Entzun hituan azken hitzak zerak izan zituan: hiru ordu t'ardi, portatu haiz!

Ezaugarri teknikoak:

1983 Abustuak 21an eginiko eskalada Ansabereko

Ipar-orratzean, «Via Bellefon».

Mendebal aldean, «Via Original»

Zailtasuna: T.D. sup.

Luzera: 250 metro

Orduak: 4-5 ordu

Lehen igoera: 1957, 10.6

Bellefon, Despiu, Ravier eta Dufourmantelle

Erref. Ollivier, Pyrénées Occidentales. 1.alea, 29.orr.

Egilearen argazkiak.

Patxi, kabiko sakapean, hots, diedro bukaeran dagoen tetrotxoa superatzen.